PRUEBA DE ACCESO A CICLOS FORMATIVOS DE GRADO SUPERIOR
PARTE ESPECÍFICA CIENCIAS E INGENIERIA
CONVOCATORIA 2025

Resolución 490/2025 de 8 de noviembre

22/05/25

LENGUA VASCA

Ama lurra

Horrela deitzen dugu hazten gaituen harri eta buztinezko zorua, gure solaskideari aurpegi beato eta infantila eskainiz. Larunbat honetan irekitzen da Parisen Nekazaritza Feria animala, anabolisantez hantu abere mastodonteen erakusleihoa eta kolore guzietako politikarien hordi-lekua. Astebetez makina erraldoiak, biozidiorik eraginkorrenak eta laborantza industrialaren eredua goraipatzen duten gizaki mutur gorrienak ikusiko ditugu pantailetan. Ama lurra dagoeneko bizirik gabeko aztalpe gogorra bihurtzen ari da.

Frantziako Parlamentuak bozkatu berri du nekazaritza, are gehiago, produktibismoaren bidean bultzatzeko legedia bat, aldaketa klimatikoari eta trantsizio ekologikoari buruzko aipamenak isilduz. Hautetsiek, gainera, laborantza biologikoaren eremuen sustatze planak ere ezeztatu dituzte. Ororen buru laborariek, karrikara jaisten direnean, ordaintzeko nekeziak dituzten traktore erraldoien gainean, kimikarien eta energia fosil zaleen jokoa egiten dute. Gobernuak eta lobbyek txalotzen dituzte sindikalista suhar horiek, baina lurrak, erleek eta kontsumitzaile arruntek ez. Alabaina.

Itxaro Borda, *Berria*, 2025ko otsailaren 21a

1.- GAIA (1,5 p)
2.- EGITURA (Eskematikoki) (2,5 p)
3.- TESTU MOTA. Justifikazioa, 10 lerro gehienez. (2,5 p)
4.- BALORAZIO KRITIKOA, 10 lerro gehienez. (2,5 p)
5.- ZUZENTASUNA ETA ORTOGRAFIA (p 1)

PRUEBA DE ACCESO A CICLOS FORMATIVOS DE GRADO SUPERIOR

PARTE ESPECÍFICA CIENCIAS E INGENIERIA

CONVOCATORIA 2025

Resolución 490/2025 de 8 de noviembre

22/05/25

LENGUA VASCA

PRUEBA DE ACCESO A CICLOS FORMATIVOS DE GRADO SUPERIOR

PARTE ESPECÍFICA CIENCIAS E INGENIERIA

CONVOCATORIA 2025

Resolución 490/2025 de 8 de noviembre

22/05/25

LENGUA VASCA